

2022/2023 ikasturtea

**OSPITALERATUTA DAUDEN HAUR JAIOPERRIETAN MINA
MANEIAZKEKO ERIZAINZTA-ZAINKETAK**

June Segurola Gil

LABURPENA

Sarrera: Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du jaioberria (JB): 28 egun baino gutxiago dituen haurra. Denbora horretan ematen diren aldaketek eta gertakariak haurren zaugarritasuna areagotu dezakete, eta, beraz, prebentzio-neurri zehatzak hartzea beharrezkoak dira. Nahiz eta azken urteotan haur JBen ospitale-egonaldiaren iraupena gutxituz joan den, denbora horretan, JBek, hainbat prozedura inbaditzaile bizi ohi dituzte. JBen minaren balorazioa eta protokoloen estandarizazioak urriak dira eta horrek, minaren maneiuaren gabezia handia ekartzen du.

Helburuak: helburu nagusia ospitaleratutako JBetan mina maneiatzeko erizainak duen rola ezagutzea da.

Metodologia: Berrikuspen bibliografiko honetan PIO egituraz baliatuz, osasun zientzietako deskriptore, hitz gakoak eta eragile boolearrak erabiliz, datu-baseetan bilaketa ezberdinak egin dira.

Emaitzak: JBek gehien sufritzen duten mina iatrogeniakoa da. Min hori ebaluatzeko gehien erabiltzen den metodoa eskalak dira, eta 5 eskalek bakarrik erakutsi dute ebaluatzaileen arteko konkordantzia-maila egokia. Mina pairatzen duten JBek, epe laburrean, katabolismo-egoera bat bizitzen dutela ikusi da. Epe luzera aldiz, gehiago ikertu beharko litzatekeela ikusi da. Minari aurre egiteko metodo ez-farmakologiko erabilienak hauek dira: azala-azalaren kontrako metodoa, amagandiko edoskitzea, xurgapen ez-nutritiboa, sakarosaren erabilera eta arreta galarazteko teknikak, hala nola musikoterapia eta masaje-terapia. Neurri farmakologikoak min moderatu-larriko kasuetan erabiltzen dira.

Eztabaida: autore ezberdinen iritziak emaitza gehienetan bat datoz. Gainera, oraindik gehiago ikertu behar den arloa dela ere aipatzen dute.

Ondorioak: lan honen bidez, ospitaleratuta dauden JBen mina egoki maneiatzeko erizaintza-zainketen garrantzia handia dela ondorioztatu da.

Hitz-gakoak: jaioberria, minaren maneiua, erizaintza-zainketak, tratamendu farmakologikoa, tratamendu ez-farmakologikoa.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	1
2. HELBURUAK	2
3. METODOLOGIA	3
4. EMAITZAK	6
4.1 Ospitaleratutako JBetan mina pairatzeko arrazoiak	6
4.2 Ospitaleratutako JBen minak epe labur eta luzean izan ditzaken ondorioak	7
4.3 Ospitaleratutako JBen mina identifikatu eta baloratzeko erabiltzen diren tresnak	9
4.4 Ospitaleratutako JBetan mina tratatzeko erizainaren eskuhartzeak	11
Tratamendu ez-farmakologikoa.....	11
Tratamendu farmakologikoa.....	14
5. EZTABAIDA	15
7. BIBLIOGRAFIA	19

TAULEN AURKIBIDEA

1. Taula: Pio egitura.....	3
2. Taula: PIO egitura eta kategoria bakoitzeko DeCS, MeSH, hitz gako eta terminologia librea.....	3
3. Taula: barneratze eta kanporatze irizpideak.....	4

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. Irudia: Haynes piramidearen moldaketan oinarritutako informazio iturrien antolaketa. Bertan ageri diren zenbakiak bibliografian dagokien artikuluekin bat datozelarik.....	5
--	---

ERANSKINEN AURKIBIDEA

1. Eranskina: datu-baseetan egindako bilaketa bibliografikoaren prozesua eta emaitzak.	25
2. Eranskina: datu-baseetan lortutako dokumentuen laburpena.....	27
3. Eranskina: NIPS eskala.....	34
4. Eranskina: PIPP eskala.....	35
5. Eranskina: CRIES eskala.....	35
6. Eranskina: NFCS eskala.....	36
7. Eranskina: COMFORT eskala.....	36

LABURDURAK

- OME: Osasunaren Mundu Erakundea
- JB: Jaioberria
- JZIU: Jaioberrien Zainketa Intentsiboetako Unitatea
- EPE: Espainiako Pediatria Elkarte
- PIO: problem (pazientea); intervention (interbentzioa) eta outcome (emaitza).
- DeCS: Descriptores en Ciencias de la Salud
- MeSH: Medical Subject Headings
- APA: Ameriketako Pediatria Akademia
- KPE: Kanadako Pediatria Elkarte
- PJE: Poloniako Jaioberrien Elkarte
- NIPS: Neonatal Inphant Pain Scale
- PIPP: Premature Infant Pain Profile
- CRIES: Crying, Requires Oxygen Saturation, Increased Vital Signs, Expression and Sleeplessness
- NFCS: Neonatal Facing Coding System

1. SARRERA

Azken urteetan jaiotza-tasak beheranzko joera izan du. 2022ko jaiotza kopurua azken lau urteetako zifren azpitik egon da; izan ere, urte horretan, Estatistikako Institutu Nazionalak, Espainian 329.849 jaiotza erregistratu zituen (1,2).

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du jaioberria (JB): 28 egun baino gutxiago dituen haurra. Epe horretan ematen diren aldaketek, gertaerek eta inguruko eragileek haurren zaurgarritasuna areagotu dezakete, eta beraz, zaurgarritasun horrek ekar ditzakeen ondorioak ekiditeko, prebentzio-neurri zehatzagoak aplikatzeko beharra sortzen da (3).

Erditu ondorengo amaren eta JBaren ospitale-egonaldiaren iraupena pixkanaka murriztuz joan da azken hamarkadetan. Gaur egun, JB osasuntsuaren ospitale-egonaldia, erditze baginala izan denean, gutxienez, 48 ordukoa da. Jaiotza zesarea bidezkoa izan denean, aldiz, ospitale-egonaldia gutxienez, 72-96 ordukoa izango da (4,5).

Hala ere, bizi-prozesu hori gainditzeko zailtasunak dituzten JBak ere badaude, hain zuzen ere, jaioberrien zainketa intentsiboetako unitateetan (JZIUn) ospitaleratuak izan behar dutenak (5). Bertan ospitaleratzeko arrazoi nagusienak goiztiartasuna eta horri lotutako patologiaak dira, eta baita, JBetan ematen diren arnas asaldurak ere. Hala ere, JZIUn ospitaleratzearen kausak aldatu egiten dira komunitate batetik bestera, eta, neurri handi batean, populazioaren maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren arabekoak dira (6).

OMEk eta Espainiako Pediatria Elkarteak (EPE) definituta, **JB goiztiarra** haurdunaldiaren 37. astea baino lehen jaiotzen den haurra da. Hori da JBen heriotza-kausa nagusienetako bat, baita JZIUra deribatzearen arrazoi nagusienetako bat ere. JB goiztiarren kasuen bi heren berezko gertaeren ondorio dira, adibidez, erditze-lan goiztiarragatik. Kasu horretan, umetokiko uzkurdurek umetoki-lepoa haurdunaldiko 20. astearen ondoren eta 37. astearen aurretik irekitzea eragiten dute. JB goiztiarren gainerako herenak erditze medikalizatuen ondorio dira, hala nola, haurdunaldiko infekzioak edo bestelako konplikazioek sortutakoak, erditze-lana goiz induzitzea edo zesarea bidezko erditzea eskatzen dutenak (3,7).

Haurra jaiotzen den unetik, ospitaleratuta dagoen unitatean bertan, hainbat prozedura mingarri jasan ohi ditu, esaterako K bitaminaren injekzioa edo orpoko proba. Hori gutxi balitz, JZIUra deribatu behar diren JBak, egunean 14-16 prozedura mingarri izan ditzakete eta horietako gehienak mina kontrolatzeko neurri eraginkorrik gabe egiten dira (8).

Aurretik aipatutako bai JZIUn eta baita ospitale-unitateetan egindako prozedurak, JBentzat mingarriak izan daitezkeenak, ondorioak izan ditzake epe labur eta luzean. JBek pairatzen duten mina maneiatzeko, haren jatorria ezagutu behar da (8).

Minaren balorazioari dagokionez, kontuan hartu behar da haurren mina ez dela helduena bezalakoa, heldutasun eta garapen-desberdintasun handiak baitaude. Gainera, gaur egun, JBen mina baloratzeko dauden eskalak desberdinak dira beren artean: izan ere, eskala batetik bestera kontuan hartzen diren parametro eta puntuazioak aldatu egiten dira eta horrek, praktika klinikoan gidak estandarizatzea zailagoa egiten du (3,9).

Protokoloen estandarizazioen faltaz gain, osasun profesionaletan prestakuntza teoriko-praktikoan hutsune bat dagoela ikusi da. Horrek guztiak, eta unitate horietako lan-karga handiak, JBen minaren ebaluazio eta maneian gabezia handia ekarri du (3,10).

2. HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia ospitaleratutako JBetan mina maneiatzeko erizainak duen rola ezagutzea da. Horretarako, bigarren mailako helburu hauek definitu dira:

- Ospitaleratutako JBetan mina pairatzeko arrazoiak identifikatzea.
- Ospitaleratutako JBen minak, epe labur eta luzean, izan ditzaken ondorioak antzematea.
- Ospitaleratutako JBen mina identifikatu eta min hori baloratzeko erabiltzen diren tresnak ezagutzea.
- Ospitaleratutako JBetan mina tratatzeko erizainaren eskuhartzea deskribatzea.

3. METODOLOGIA

Berrikuspen honetan, ikerketa-galdera garatzeko eta aztergaia bideratzeko PIO egitura erabili da (1. taula). Ikerketa galdera hurrengoa izan da: “*Zein da ospitaleratutako JBen mina maneiatzeko erizainak duen rola?*”.

1. Taula: PIO egitura.

Patient (pazientea edo taldea)	Mina pairatzen duten ospitaleratutako JBak.
Intervention (esku-hartzea)	Ospitaleratutako JBen mina maneiatzeko erizaintza zainketak.
Outcome (emaitzak)	Ospitaleratutako JBen mina arintzea

Iturria: propioa.

Behin PIO egitura zehaztuta, bakoitzari dagozkion *DeCS* (Descriptores en ciencias de la salud) eta *MeSH* (Medical Subject Headings) deskriptoreak bilatu dira. Deskriptoreez gain, bilaketa zehatzagoa egiteko hitz gako eta terminologia librea ere erabili da (2. taula).

2. Taula: PIO egitura eta kategoria bakoitzeko *DeCS*, *MeSH*, hitz gako eta terminologia librea.

	DeCS	MeSH	Hitz gakoak	Terminologia librea
P	-Recién Nacido -Dolor -Dolor agudo	-Newborn -Infant -Pain -Acute pain	-Neonato -Niño recién nacido -Sufrimiento físico -Dolor	-Recién nacido -Neonato -Dolor -Dolores -Sufrimiento
I	-Manejo del Dolor -Atención de Enfermería -Proceso de enfermería	-Pain Management -Nursing Care -Nursing process	-Manejo del dolor -Gestión del dolor -Cuidado de enfermería -Cuidados de enfermería -Procesos de enfermería	-Manejo del dolor -Alivio del dolor -Manejo del sufrimiento -Manejo de la agonía -Intervención de enfermería
O	-Anestesia y analgesia	-Anesthesia and analgesia	-Analgesia -Anestesia	-Alivio -Suavizar -Mejorar

Iturria: propioa.

Behin deskriptoreak erabakita bilaketa bibliografikoa 2022ko irailaren 20tik 2021eko urtarrilaren 10ra bitarte burutu da honako datu-baseetan: *BVS* (Osasunaren liburutegi birtuala), *Pubmed*, *Dialnet* eta *Cuiden* (azken honetan ez da aurkitu ezarritako helburuekin bat datorren emaitzarik). Hala ere, erabilitako informazioa gaurdaino eguneratuta dago, ahalik eta datu berrienak azaldu daitezzen. Bertan, aurretik aipatutako *DeCS*, *MeSH* eta hitz gakoaren arteko konbinazio ezberdinak sortu eta termino horien lotura “AND” eragile boolearrarekin erabili da (1. eranskina). Bilaketa-bideari dagokionez, “izenburuan”, “laburpenean” eta “gaian” oinarritutako bilaketa burutu da.

Bilaketa zehatzago bat lortzeko, zenbait iragazki erabili dira (1. eranskina). Hizkuntzari dagokionez, ingelesezko eta gaztelaniazko artikulak bakarrik hautatu dira, eta bilaketa gehienetan 2015-2022 bitartean argitaratutako artikulak bakarrik aukeratu dira. Ondoren, datu-base desberdinetan bilaketak osatu ondoren, lana burutzeko erabiliko diren artikulak hautatu dira, barneratze eta kanporatze irizpideak jarraituz (3.taula).

3. Taula: barneratze eta kanporatze irizpideak.


Barneratze irizpideak	Kanporatze irizpideak
<ul style="list-style-type: none"> -JBaren etaparekin zerikusia duten artikulak. -Ospitaleratutako JBak kontuan hartzen dituzten artikulak. -Erizaintzako zainketekin lotutako artikulak. -Zainketa intentsiboetan dauden haurrei buruzko artikulak. 	<ul style="list-style-type: none"> -Adin-tartea 28 egunetik aurrera bakarrik duten haurren artikulak. -Erditu osteko amen esperientzia ardatz duten artikulak. -Kasu berezizat jotzen diren JBetan oinarritutako artikulak. -Urgentzian bakarrik gertaturiko kasuei buruzko artikulak. -Ebidentzia baxuko artikulak.

Iturria: propioa.

Datu baseetan bilatzeaz gain, informazioa Osasun Ministerioa, EPE, Ameriketako Pediatria Akademia (APA) edo OME bezalako erakundeen erreferentziekin osatu da. Artikuluak hautatu ala baztertzeko eta baliagarritasuna eta erabilgarritasuna frogatzeko izenburua, gaia eta emaitzen irakurketa egin da (2. eranskina).

Bilaketa estrategia bidez erabilitako erreferentzia bibliografikoak ebidentzia-mailaren arabera antolatu dira Haynes-en piramidean oinarrituz (1. irudia). Piramide honek, artikuluek egitura hierarkiko baten bidez eta ebidentzia-mailaren arabera garaiera desberdinetan sailkatzen ditu.

1. Irudia: Haynes piramidearen moldaketan oinarritutako informazio iturrien antolaketa. Bertan ageri diren zenbakiak bibliografian dagokien artikuluekin bat datozenelarik.



Iturria: propioa, ondorengo bibliografian oinarritua (11).

Azkenik, bilaketa estrategia bidez 25 artikulua hautatu dira. Artikulu hauek emaitzen atala idazteko erabili dira (eta aurretik aipatutako barneratze eta baztertze irizpideekin sailkatuz hautatu dira). Sarrera eta eztabaidari dagokionez, bilaketa librearekin osatu da eta 12 artikulua gehiago erabili dira, bilaketa hau, aurretik aipatutako erakundeen erreferentziekin osatu da batik bat.

4. EMAITZAK

Aurretik aipatu den bezala, JBek bizitzako lehen egunetatik hainbat prozedura mingarri jasaten dituztela ikusi da eta prozedura horiek gaixotasuna beragatik edo helburu diagnostikoa eta terapeutikoa duten prozedurengatik egin daitezke (12–14).

APA, Kanadako Pediatria Elkarte (KPE) eta Poloniako Jaioberrien Elkarte (PJE) pediatria eta neonatologiako elkarte nagusiak dira. Elkarte horiek diotenez, JZIUn ospitaleratuta dauden JBetan mina prebenitzeko planek eta prozedura medikoen aurretiko prestakuntzak zenbait onura ekar ditzake JBetan. Batez ere, JBek pairatzen duten minaren kontrolari, tratamenduari eta prebentzioari dagokionez (15).

4.1 Ospitaleratutako JBetan mina pairatzeko arrazoiak.

Ez da erraza JBen minaren prebalentzia zehatz mehatz zenbatekoa den jakitea, ez bakarrik min mota ezberdinengatik (akutua, kronikoan, neuropatikoa...), baizik eta mina pairatzeko dauden kausa ezberdinengatik ere (16). JBa jaiotzean, umetoki barneko babesgirotik, kanpoko mundura dagoen aldaketa bortitza pairatzen du eta haien biziraupena oso zainketa espezializatuen menpe dago (17).

JBek mina pairatzeko arrazoi ohikoenetako bat, **gaixotasunek sortzen duten mina** da. Izan ere, patologiek sortutako koadro klinikoek, sepsia, tratamendu kliniko mingarriak, kirurgia edo ospitaleko egonaldi luzea eragin dezakete. Argi dago, egun dauden aurrerapen medikoei esker, lehen bizi-itxaropenik ez zuten JBek biziraupen handiagoa dutela. Izan ere, prozedura horiek beharrezkoak dira JBak tratatzeko eta zaintzeko baina mina eta ondoeza eragin diezaiekete (18).

Aipatutako aurrerapen horiek, JBari ematen zaizkion prozedura mingarriak gehitzea dakartzate. Izan ere, JBek pairatzen duten minaren **arrazoi nagusia iatrogenikoa** da, alegia, prozedura diagnostiko eta terapeutikoen ondorioz ematen dena (13). JZIUn gehien errepikatzen diren prozedurak hurrengoak dira (19,20):

- Prozedura diagnostikoak:
 - Arteria-ziztada
 - Zain-ziztada
 - Orpo-ziztada
 - Ziztada lunbarra

- Prozedura terapeutikoak
 - Erdibideko kateterra/periferikoa
 - Zainbide periferikoa
 - Intubazio endotrakeala
 - Pleura-drainadura/torakostomia
 - Bronkio/trakea xurgaketa
 - Aposituak aldatzea
 - Zundaketa nasogastrikoa
 - Maskuriko zundaketa

Honengatik guztiagatik, minaren balorazioa lehenasuna da JBak pairatzen duen minaren maneiari dagokionez. JBetan mina baloratzeko hainbat metodo dauden arren, gehien erabiltzen den metodoa eskala klinikoen erabilera da (13,21).

4.2 Ospitaleratutako JBen minak epe labur eta luzean izan ditzaken ondorioak.

Orain dela urte batzuk, hainbat autorek, JBek mina sentiarazteko ezintasuna zutela aipatzen zuten. Gaur egun, ordea, JBak estimulu mingarriak hautemateko beharrezkoak diren osagai anatomiko eta funtzional guztiak jaio baino lehenagotik dituela badakigu (13,20,22). JBetan mina transmititzeko bide anatomikoak eta biologikoak funtzionalak diren arren, minaren aurrean babesteko sistema fisiologikoak oraindik heldugabeak dira eta desoreka horrek, minaren pertzepzio-atalase baxua sortzen du (17).

Hartzaile nozizeptiboak larruazalean, muskuluetan eta erraietan kokatutako nerbio-amaierak dira, estimulu mekaniko, termiko edota kimikoen bidez aktibatzen direnak. Errezeptore horiek jasotzen dituzten estimulu mingarriak nerbio-zuntz sentitiboen bidez transmititzen dira bizkarrezur-muinaren adarrerantz. Ondoren, talamora iristen dira, eta, azkenik, garun-kortexera (17,23).

Hartzaile nozizeptiboak haurdunaldiaren 7. astetik aurrera ahoaren inguruan agertzen dira eta 20. astean gorputz-azalera osoa estaltzen dute. Haurdunaldiaren 30. astean, garunenborrean, talamoan eta nerbio-espinaletan mina sentiarazteko behar diren bideen mielinizazioa gertatzen da. 37. astean mina sentiarazteko behar diren osagai eta funtzio guztiak erabat garatzen dira (13,20,22).

Mina pairatzen duen JBak epe laburrean dituen ondorioen artean, **katabolismo-egoera** dago. Katabolismo egoeran, bihotz-maiztasuna eta arnas-maiztasuna areagotzen dira eta gainera, presio arteriala ere igotzea sortzen du. Aldiz, oxigeno-saturazioa jaitsi egiten da eta azkenik, intsulina jariatzea eragiten du (17,21).

Katabolismo- egoera honetan, katekolaminak, glukagoia, aldosterona eta kortisol mailetan gora-beherak sor daitezke. Egoera honetan ematen den glukagoiaren igoerak, glukosa-mailaren igoera ere sortzen du. Glukosa-maila igotzea kaltegarria izan daiteke entzefalo heldugabearentzat, izan ere, odolean azukre-maila handia izateak, denborarekin, garuneko odol-hodiak kaltetzen ditu. Ondorioz, garunak odol gutxi jasotzen duenean, bertako zelulak hil egin daitezke eta epe luzera ondorioak izan ditzake (10,17)

Horren ondorioz, JBetan **portaera aldaketak** eta JB goiztiarren zaurgarritasuna areagotu dezakeela aztertu da (21). Portaera-aldaketei dagokionez, negarra, irribarre gabezia, pasibotasuna, inguruarekiko deskonexioa, aurpegi keinuaren alterazioa etab. izan daitezke. Hori gutxi balitz, gorputz-jarreraren aldaketak ere eman daitezke, espastizitateak (artikulazioen mugikortasunarekiko erresistentzia), mugikortasun eta loaren nahasteak, garapen atzerakada etab. Gainera, jokabidearen erantzun negatiboak gehitzen dira, hala nola, jateko gogorik eza, oka egitea edo berrahoratzeak, nutrizio aldetik ekarpen txarra eragiten dutenak eta epe luzera, hazkundera eta garapena mugatzen dituztenak (24).

Egun oraindik ezagutza gutxi dago JBaren minak epe luzean izango duen eraginari buruz. Hala ere, epe motzera tratatu gabeko JBen minak, epe luzera ondorioak izan ditzakeela ikusi da azken urtetan egindako hainbat ikerketetan. Bizitzako lehen etapetan pairatzen den minak **erantzun afektibo-funtzionala areagotu** dezake ondoren eman daitezkeen estimulu edo esperientzia mingarrien aurrean. Gainera, JB-aldiko prozedura mingarrien kopurua eskola-adineko haurren **adimen-koefiziente baxuarekin** ere hertsiki lotu da (19).

4.3 Ospitaleratutako JBen mina identifikatu eta baloratzeko erabiltzen diren tresnak.

Minaren balorazio egokia egitea garrantzitsua izango da erabili beharreko tratamendu mota zehazteko. Mina neurtzeko eskala ugari baliozkotu dira, eta eskala gehienak bat datoz mina neurtzeko erabiltzen diren adierazleekin (negarra, keinuak, jokabide-aldaketak, bizi-zeinuen alterazioak, alterazio metabolikoak, besteak beste) (25).

Hala ere, eskala guztien artean dagoen aldakortasuna handia da; dimentsio bakarreko eta dimentsio anitzeko eskalak, min kronikoa baloratzen duten eskalak, prozeduretan pairatutako mina, min akutua, ebakuntza ondoko mina ebaluatzen duten eskalak etab. (25).

Ondoren aipatuko diren eskalak gehien erabiltzen direnak dira. Izan ere, horietako 4 (NIPS, PIPP, CRIES, Escala Comfort) multidimentsionalak dira, hau da, alderdi bakarra baloratzeaz gain, alderdi fisiologikoak eta/edo testuinguruak baloratzen dituzte. Edozein eskala erabilia ere, komenigarria da mina 4-6 orduz behin neurtzea (13,20,21,25).

1. Neonatal Infant Pain Scales (NIPS):

Teknika edo prozeduraren batek eragindako mina baloratzen du. Imintzioan, negarrear, arnasketan, beso eta zangoen mugimendua eta esnatzeko etapan dauden aldaketak ebaluatzen ditu (3. eranskina). Gehieneko puntuazioa 7 da (0 ez du minik eta 7 min larria). Eskala hau ezin da modu bakarrean erabili, haurraren egoera globala eta giroa ere kontuan hartu behar dira (13,20,21).

2. Premature Infant Pain Profile (PIPP)

Neurketa-eskala multidimentsional bat da, haur goiztiarren eta JB garaikoen mina baloratzeko balio duena. Ondo onartuta dago haurdunaldiaren adin gestazionala kontuan hartzen duelako (21). 7 adierazle baloratzen ditu (jokabide- parametroak, garapena eta parametro fisiologikoak integratzen ditu). Adierazle bakoitza Otik 3ra bitartean puntuatzen da. 6 edo gutxiagoko balio batek adin guztietarako minik ez duela esan nahi du, 12 puntutik gorakoak min ertaina edo handia adierazten du (4. eranksina) (13).

3. CRIES Score (Crying, Requires Oxygen Saturation, Increased Vital Signs, Expression and Sleeplessness)

5 adierazle fisiologiko eta portaera-adierazle kontuan hartzen ditu. Eraginkortzat jotzen da JBen ebakuntza ondoko mina ebaluatzeko eta identifikatzeko (5. eranskina). Parametro bakoitzak 0, 1 edo 2ko balorea du. 4 edo gehiagoko puntuazioak, JBak mina duela adierazten du (13).

4. Neonatal Facing Coding System (NFCS)

Aurpegiko aldaketetan oinarritutako kode sistema du oinarri, kirurgia osteko mina baloratzeko erabilgarria da. Fidagarritasun handia du. Aurpegi-adierazpenean oinarrizten den eskala denez, JBa baloratu osteko emaitzetan aldaketak egon daitezke banakakoen artean. 9 puntuko gehieneko puntuazioa duen tresna da; 0 puntuko balio batek minik ez dagoela esan nahi du, eta 9 puntuk JBak min handia duela adierazten du (6. eranskina) (13).

5. Escala Comfort

Eskala honek parametro fisikoak eta jokabide-parametroak baloratzen ditu. Gaur egun gehien erabiltzen den eskaletako bat da. Hauek dira aztertzen dituen aldagaiak: egonezina eta alerta-egoera, aireztapen mekanikoa duten haurrentzako arnasketa-erantzuna edo berezko arnasketa duten JBentzako negarra, mugimendu fisikoak, giharretako indarra eta aurpegiko adierazpena. 17 edo gehiagoko puntuazioak JBak mina duela adierazten du eta analgesia jarri behar dela esan nahi du (7. eranskina) (13).

JBen mina baloratzeko eskalak, minaren horren ondoriozko asaldura fisiologikoak eta jokabidezkoak behatzean eta erregistratzean oinarrizten dira. Osasun profesionalaren aldetik entrenamendu-maila eta esperientzia-maila handia eskatzen dute. Onartutako eskala asko dauden arren, 5 horiek bakarrik frogatu dute ebaluatzaileen arteko konkordantzia-maila egokia dutela (13).

4.4 Ospitaleratutako JBen mina tratatzeko erizainaren eskuhartzeak.

Erizainaren papera funtsezkoa da JBen mina tratatzeko garaian; izan ere, harreman zuzena eta etengabea du JBarekin eta haren familiarekin. Minaren balorazioa, prebentzioa eta tratamendua JBen funtsezko eskubideak dira eta horregatik, erizainak, JBen mina ebaluatzeko eta maneiatzeko gai izan behar du, bai eta mina arintzeko tratamendu farmakologiko eta ez-farmakologiko egokiak hautatu eta emateko ere. Gainera, beste osasun profesionalekin taldean lan egitea ezinbestekoa izango da JBaren eta haren familiaren arreta integrala bermatzeko, eta minaren kudeaketan komunikazio eraginkorra eta lankidetzaren sustatzeko (24,25).

JBek minaren kontrol egokia jasotzen dutela bermatzeko, JBen unitateetan neurri orokor batzuk ezartzea gomendatzen da (20):

- JBaren ebaluazio sistematikoa eta errutinazkoa, min-zeinuak bilatuz, eskalak eta balizko kausak baloratuta.
- Beharrezkoak ez diren estimulu mingarriak minimizatzea edo mugatzea, gurasoen presentzia eta lankidetzaren sustatzea.
- Min akutua prebenitzea/murriztea, aldezturik analgesia emanaz, neurri ez-farmakologikoak eta farmakologikoak barne. Azken hauek beharrezkoak badira, min-mailaren arabera mailakatuta emango dira.
- Minari heltzeko eta hura maneiatzeko protokolo/gida estandarizatuak.

Tratamendu ez-farmakologikoa

Estrategia ez-farmakologikoen helburua estresa gutxitzea, mina murriztea eta arintzea da. Estrategia horiek mingarriak ez diren estimuluak eskaintzen dituzte, mingarriekin lehiatzen direnak eta haien pertzepzioa arintzen dutenak (17). Hainbat elkarte zientifikok, OMEren laguntzarekin, mina arintzea giza eskubidetzat hartzea aldarrikatzen ari dira, eta dokumentu eta azterlan ugari JBen mina balioesteari eta tratatzeari garrantzia ere bermatzen dute (18).

Tratamendu ez-farmakologiko esanguratsuenak dira: azala-azalaren kontrako metodoa, edoskitze naturala, xurgapen ez nutritiboa, sakarosen erabilera, euste-teknika eta arreta galarazteko teknikak (musikoterapia eta masaje-terapia) (20). Hala ere, amagandiko edoskitzea, azala-azalaren kontrako metodoa eta sakarosa dira gehien aztertzen diren

estrategiak eta eraginkortasun eta segurtasunari dagokionez ebidentzia-maila handiena dutenak (26).

Familiak JBen ospitalizazioan parte hartzea eta kontuan hartzea garrantzitsua da, onura handiak ekartzen baititu, lotura afektiboa hobetzeko eta azala-azalaren kontrako bezalako metodoak aplikatzen laguntzeko. Osasun profesionalen talde osoak familia inplikatu beharko du haurraren zaintzan (26).

Azala-azalaren kontrako metodoari dagokionez, neurri fisiologikoak eta JBak duen minaren portaera murrizten du prozedura mingarrietan, eta ez du identifikatutako ondorio kaltegarriak. Azala-azalaren kontrako metodoari dagokionez, prozedura egin baino 10 minutu lehenago, aita edo ama aulki etzangarri doigarri batean eseriko da, ondoren, haurra biluzik jarriko da aitaren edo amaren bular biluzian. Azala-azalaren kontrako metodoa, JBari egin behar zaion prozedura mingarriaren aurretik egiten hasiko da eta prozedura bukatzean ere egiten jarraituko da. Azala-azalaren kontrako metodoaren iraupena, guztira, ordu betekoa izatea gomendatzen da gutxienez (27).

Ikerketa bateko egileen arabera, bost azterlanetako meta analisi batek aipatu zuen azala-azalaren kontrako metodoa jaso zuten JBen eta tratamendurik jaso ez zuten JBen artean bihotz-maiztasunaren batez besteko jaitziera minutuko 10,8 taupadako izan zela (28–30).

Berrikuspen sistematiko batzuek, **edoskitze naturala** neurri analgesiko gisa, eraginkortzat eta segurutzat hartzen dute. Gainera, OMEK analgesiko gisa ez ezik, immunizazioan zehar erabiltzea gomendatzen du. Edoskitze naturala eraginkorra izan dadin, edoskitzea, JBari egin beharreko prozedura baino 5 minutu lehenago hasi behar da, gutxi gorabehera. Gainera, JBak prozedura hasi aurretik, bitartean eta amaitu ondoren modu eraginkorrean xurgatu behar du, ondorio analgesiko eraginkorrak lortzeko (31).

Xurgapen ez-nutritiboa haurtxoari nutriziorik eman gabe, ahozko estimulatzaile bat sartzean datza, txupetea edo titiburua adibidez. Metodo hori xurgatze-erreflexuan oinarritzen da, alegia, JBengan naturala den erreflexuan. JBek prozedura mingarriak jasaten dituztenean min akutuaren intentsitatea eta iraupena murrizten duela frogatu da (4).

Sakarosaren erabilera, JBen unitateetan sakonki ikertutako arloa da. Hala ere, azterlan ezberdinen autoreen artean ez dago adostasunik mina arintzeko neurri ez-farmakologikotzat edo farmakologikotzat hartzeari dagokionez (4). Sakarosaren erabilera segurua eta eraginkorra dela erakutsi da JBei egin beharreko prozeduretan mina arintzeko. Hartzaile-opiaseo endogenoen bidez jarduten duela uste da (17,32).

Aurkitutako ikerketa bateko autoreen arabera, sakarosa JB eta JB goiztiarrei egiten zaizkien prozeduren mina murrizteko eraginkorra da. Tratamendu ez-farmakologiko honetan ez da albo-ondoriorik dokumentatu. Sakarosa eta farmakologikoak ez diren beste neurri batzuk konbinatuz, hala nola, xurgapen ez nutritiboa, sakarosa bakarrik baino eraginkorragoa dela egiaztatu da. Hala ere, sakarosa bakarrik erabiltzea edo beste neurri farmakologikoekin batera erabiltzea gehiago ikertu behar dela aitortzen dute (33).

Gaur egun erabiltzen den beste teknika ez farmakologikoetako bat euste-teknika da. JBari eustean datza ama bertan egon ezin den prozeduretan. Buruari eustean eta goiko eta beheko gorputz-adarrak tolestean datza. Bere eraginkortasuna, haurdunaldian umetokian izandako posizio berdinean egoteagatik JBak sentitzen duen segurtasunagatik etor liteke. Horregatik, JBa posizio horretan seguru sentitzen dela uste da eta lasaiago gelditzen da (13).

Aurretik aipatutako tratamendu ez-farmakologikoez gain, badira beste hainbat terapia erabilgarri haurren ongizatean laguntzen dutenak eta beste tratamenduekin osagarriak direnak. Batetik, musikoterapia: musikak eta bere osagaiek (erritmo-egiturak, eskalak, tonuak, etab.) jarduera-eredu koherenteak sortzen dituzte emozio moduan, hau da, JBaren berezko ezaugarri zehaztutako egokitze-erantzunak, bai erantzun fisiologikoak eta portaerakoak. JBentzako musikak sinplea, arina baina motela izan behar du, erritmo baketsu eta erregularrarekin (17).

Bestetik, **masaje-terapia** ingurune pediatriko akutuetan mina maneiatzeko estrategia potentzialtzat hartzen da. Ukimena, mendeetan zehar, sendaketaren parte izan da zibilizazio eta kultura askotan. Esaten da, historia medikoan, masajea dela mina arintzeko modurik goiztiarrena. JBentzako masajea eskuen bidezko ukimen sistematikoan datza, eta hamarkada batzuetan zehar, haurraren eragin positiboa duela dokumentatu du.

Ikerketek erakutsi dutenez, masaje-terapiak estresa arindu eta odol-zirkulazioa hobetu dezake kortisol-mailak murriztuz eta serotonina eta dopamina mailak handituz. Hala ere, mina maneiatzeko prozedura gisa erabiltzea sakonago aztertu behar da (34,35).

Tratamendu farmakologikoa

Ospitaleratutako JBak hainbat etiologiatako patologiengatik daude ospitalerata, eta medikuen eta erizainen manipulazioak eta prozedurak jasotzen dituzte, mina, estresa eta loaldian asaldurak eragin ditzaketenak. Horregatik guztiatik, garrantzitsua da tratamendu farmakologikoa behar den egoeretan ematea, baita terapia ez-farmakologikoa nahikoa ez denean ematea ere (13).

Neurri farmakologikoak min moderatu-larrian erabiltzen dira, eta haien ekintza optimizatzeko, neurri ez-farmakologikoekin batera erabiltzen dira. Gehien erabiltzen direnak opiazeoak eta anestesiko lokalak badira ere, farmako ez opiazeoak eta benzodiazepinak ere erabiltzen dira (17). Kasu hauek gehienak JZIUn dauden JBetan ematen dira, izan ere, prozedura inbaditzaileagoak sufritzen dituzte eta prozeduraren arabera, farmako bat edo beste jarriko zaio. JBaren heldutasun funtzionalaren gabeziak farmakoen batez besteko bizitza handitzea eta kanporatzea zailtzea dakar, eta, beraz, horiek ematean arreta berezia jartzea komeni da (19).

Farmako opiazeoen kasuan, **fentaniloa** eta **morfina** dira analgesiarako gehien erabiltzen direnak. Farmako ez-opiazeoen kasuan aldiz, **paracetamola** izango da gehien erabiliko den farmakoa antiinflamatorio ez-esteroideekin batera (13).

Anestesiko lokalei dagokionez, pediatria arloan asko erabiltzen dena prilokaina eta lidokaina nahastuz osatutako krema da (adibidez: EMLA). Prozedura inbaditzaile txikiagoetan eraginkorra dela frogatu du eta neurri analgesiko gisa erabiltzen da zauri ez oso sakonen eta zainetako odol-laginen prozedurarako (19,36).

Benzodiazepinak, JZIUn gehien erabiltzen diren lasaigarriak dira. Tratamendu osagarri gisa egokiak dira, oso eraginkorrak dira min neuropatikoetan, opiazeoekin tratatzean eraginik egiten ez dietenean. Gehien erabiltzen direnak midazolam, lorazepam eta diazepam dira. Arnas depresioa eta apnea dira gaindosiaren eta infusio-azkartasunaren mende dauden albo-ondorio ohikoenak, flumazeniloarekin itzul daitezkeenak (13).

Minaren maneiua integrala eta indibidualizatua izan behar da, eta behar bezala hautatu behar dira erabiliko diren farmakoak. Eraginkortasun eta segurtasun handieneko farmakoa aukeratu behar da. Aurretik aipatu den bezala, kontuan hartu behar dira JBaren eta helduaren arteko aldeak farmakoen bioerabilgarritasunari dagokionez, bai eta parametro farmakozinetiko guztiei dagokienez ere. Hori dela eta, kontuz ibili behar da, batez ere, tratamendu luzeetan, garapena eta hazkundera kaltetu eta kontrako ondorio garrantzitsuak eragin baititzake (13,31).

5. EZTABAIDA

Aurkitutako artikuluetako autoreak, JBek mina sentitzeko gaitasuna dutela aitortzerakoan bat datozen, bai jaio aurretik bai jaio ondoren, haurdunaldiaren 7. astetik aurrera, hain zuzen ere (3,21). Ospitalean dauden JBek prozedura mingarri ugari jasaten dituzten arren, askotan, beharrezkoak eta saihestezinak dira. Esperientzia mingarri horiek, hain adin txikian, ondorio kaltegarriak ekar ditzakete berekin (4).

Minak eragin ditzakeen ondorioei dagokionez, nahiz eta orain dela urte askoko artikuluzientifikoek JBek mina sentiarazteko ezintasuna zutela aipatu, gaur egungo ikerketek frogatu dute bai epe labur eta luzera ondorio kaltegarriak eragin ditzaketela. Aurkitutako artikuluen autoreak, mina pairatzen duten JBak epe laburrean katabolismo-egoera bat bizitzen dutela aipatzen dute. Epe luzera aldiz, mina pairatzen duten JBek eduki ditzakeen ondorioak gutxi ikertu direla diote. Hala ere, JB aldian mina pairatutako hurrek, urte batzuen ondoren, estimulu mingarriak jasotzean, min-zeinu handiagoak erakutsi dituzte (17,19,23).

JBek pairatzen duten minaren maneiua aurrerapenei dagokionez, mina sentitzen duten JBen biziraupena areagotu egin da. Argi dago, minaren maneiua era holistikoki tratatu behar dela, JBa inguratzen duen guztia kontuan hartuz. Horretarako, ezinbestekoa izango da osasun profesionalaren inplikazioa, eta baita haren garapena ere (21).

Egoera horiei modu egokian heltzeko, mina behar bezala ebaluatzea da lehenengo urratsa. Zenbait autorek diote, JBen mina neurtzeko jokabide-faktoreak kontuan hartzea dela ebaluazio-metodirik gomendagarriena eta balorazio eskalak dira faktore horiek gehien islatzen dituztenak (3). Erizaintzako langileen ardura da baliozkotutako eskalak erabiltzea eta JBak mina sentitzen duen ingurunea eta egoera kontuan hartzea. Oraindik ez da

identifikatu eskala zuzen bat gomendatzeko arrazoi nahikorik, baina artikulu batzuek diotenez, PIPP eta NIPS dira gehien erabiltzen direnak (4).

Beste artikuluetan aldiz, 5 eskala aipatzen dira gehien, PIPP, NIPS, CRIES, NFCS eta Comfort eskalak, hain zuzen ere (13,20,21,25). Aipatu beharra dago, ikerketek diotenez, Espainia mailan, osasun profesionalen aldetik mina baloratzeko eskalak gutxi erabiltzen direla (10).

Tratamendu ez-farmakologikoari dagokionez, hainbat ikerketek aipatzen dute JBei prozedura mingarriak egin aurretik, erizainek erraz aplikatu ditzaketen zenbait teknika ez-farmakologiko daudela. Metodo ez-farmakologikoetako bat amagandiko edoskitzea da, metodorik merkeena eta baliagarrienetako bat da. Hala ere, azterlanetan, gehien errepikatzen den esku-hartze ez-farmakologiko erabilgarriena ahoz ematen den sakarosa da. Izan ere, minaren murrizketari dagokionez emaitza onak lortzen ditu eta gainera ama ez dagoen kasuetan baliagarria izan daiteke kontrako eraginik sortu gabe (13,33).

Tratamendu farmakologikoari dagokionez, autore gehienak ados daude erabiliko den farmakoa behar bezala hautatu eta arduraz erabili behar dela. Min arin edo moderaturako, parasetamola edo anestesiko lokalak (EMLA krema) erabiliko dira, min larrirako aldiz, opioideak (morfina, fentaniloa...) erabiliko dira. JBen minaren maneiu egokia morbiditate- eta heriotza-indize txikiagoarekin lotzen dela ere aipatzen dute (13).

Azkenik, aurretik aipatu den bezala JBek pairatzen duten mina, bai epe luze eta bai motzean JBen ongizatean ondorioak izan ditzake. JBen mina maneiatzeko eta tratatzeko aurrerapen nabarmenak egin diren arren, oraindik gehiago ikertu behar den arloa da, JBen minarekiko esposizioa minimizatzeko eta dauden tratamenduen eraginkortasuna behar bezala ebaluatzeko. Erizainen arloko ikerketa bereziki garrantzitsua da zentzu horretan; izan ere, erizainak dira, gehienetan, JBen mina identifikatzen lehenak, eta funtsezko zeregina dute min hori maneiatzeko eta prebenitzeko. JBaren minaren maneiuari buruz ikertzen jarraituz, JBei ematen zaien arretaren kalitatea hobetu daiteke, eta grapen osasungarritako behar duten arreta ematen zaiela bermatu.

6. ONDORIOAK

JBek pairatzen duten mina kezka handia da JBen zaintzari dagokionez. JBek pairatzen duten mina maneiatzeko eta tratamendu eraginkorrak aplikatzeko aurrerapenak funtsezkoak dira JBen ongizatea bermatzeko. Horretarako, erizaintzako profesionalak JBen minaren maneian parte hartzea funtsezkoa izango da minaren garapen eta erabilera egokia ziurtatzeko.

Minaren alderdi guztiak ezagutzea garrantzitsua da eta hori egin ahal izateko, osasun profesionalak arlo horretan trebatzea ezinbestekoa izango da. Gainera, ospitalean dauden JBetan mina eta estresa gutxitu eta maneiatzeak neurogarapenean alterazioak izateko arriskua minimizatzen du.

JBek hainbat arrazoiengatik izan dezakete mina, hala nola, prozedura mediko inbaditzaileengatik, gaixotasuna beragatik, erditzean bizitako aldaketa bortitzagatik etab. Garrantzitsua da arrazoi horiek ulertzea, JBen mina identifikatu eta arreta egokia eskaintzeko. JBarri zainketak bermatzerako garaian, minaren balorazioa ohiko protokoloan sartzea beharrezkoa izan behar da eta erizaintzako profesionalen eginkizuna erabakigarria izango da.

JBen mina baloratzea funtsezkoa da tratamendu egokia eman ahal izateko. JBen mina baloratzeko eta identifikatzeko hainbat tresna dauden arren, eskalen erabilera da gehien erabiltzen dena. Erizainak hobekien erabiltzen dakien edo erabiltzera ohituagoa dagoen eskala erabiliko du, JBaren egoera klinikoaren arabera eta minaren intentsitatearen arabera. JBen mina behar bezala baloratzeko eskalak erabili behar diren arren, ez dago adostasunik eskala horien erabileran eta estandarizazioan.

Minaren prebentzioa eta tratamendua JBen oinarrizko eskubide gisa errespetatu beharko litzateke. Hori dela eta, osasun-profesionalak mina eragiten duten tekniken aurrean sentiberatzea ezinbestekoa da. Gomendagarria da JBekin harremanetan dauden langileek mina tratatzeko neurri ez-farmakologiko eta farmakologikoak ezagutu, ziurtatu eta ezagutzeko gaitasuna izatea.

JBari konforta emateko lehen urratsa ingurumenaren maneiua egokia izango da: prozedura-kopurua murriztea, argi-estimuluak ahalik eta gehien gutxitzea edo inguruko zarata murriztea. JBen minaren balorazioak eta tratamenduak diziplina anitzekoak izan behar dute, tratamendu farmakologikoaz gain, teknika ez-farmakologikoak ere erabili behar dira.

Nahiz eta, aurretik aipatu den bezala, minaren maneiua tratamendu ez-farmakologiko eta farmakologikoaren konbinaketa bat izan, neurri ez-farmakologiko eta ingurumenaren maneiua aplikatzeko gomendioak nagusitzen dira. Izan ere, mina arintzeko neurri ez-farmakologikoak erabiltzea oso gomendagarria da, eraginkorrak eta seguruak direla erakutsi baitute.

Minaren maneiua integrala eta banakakoa izan behar da, eta hautatu eta erabiltzen diren farmakoak modu arduratsuan erabili behar dira. Garrantzitsua izango da JB eta helduen arteko diferentziak kontuan hartzea parametro farmakozinetiko eta bioerabilgarritasunari dagokionez.

